

“IRAKURKETA ARTEA DA”

Gaur egungo gazteen artean irakurketa geroz eta eskasagoa da. Horregatik, Jakintza Ikastolak hainbat proiektu gauzatu ditu honako egoera hau ekiditeko. Badira ekintza batzuk urtez urte aurrera eramaten direnak ikasleen irakurketa sustatzeko asmoz, hots, bai irakurketa martxa, bai solasaldi ezberdinak. Ikasleak erakartzea lortuko dutela uste al duzue?

Irakurketa gazteengan galtzear?

Egungo gazteen artean irakurketa murrizten eta sare sozialen erabilera handitzen ari da. Elena Riaño irakasleak aitortu du, “momentu honetan, TikTok dela, Instagram dela... zuek denak nahi dituzue oso estimulu goiztiarrak eta motzak, eta irakurketak bakardadea eta isiltasuna eskatzen du”. Nahiz eta zaila izan, irakurzaletasun hori lortzeko liburuak ireki egin behar dira, gustukoak aurkitu arte. Hainbat genero daudelarik, gazteek ez dute jakiten zein motatako liburuetara jo. Hortaz, eleberria irakurri eta gustukoa duten egiaztatu ordez, erraztasunarengatik liburuak alde batera uztea erabakitzen dute.

“Zuek denak nahi dituzue oso estimulu goiztiarrak eta motzak, eta irakurketak bakardadea eta isiltasuna eskatzen du”

Irakurketa martxa

Irakurketa martxan ekimenak 2016. urtean izan zituen bere hastapenak. Proiektu honetan parte hartzeko gonbita partaide anitzek jasotzen dute; besteak beste, ikasle ohiak, ikasleak, gurasoak, irakasleak eta herriko eragileak. Antolatzaileek helburu garbi bat dute, hau da, irakurketa sustatzea. Hainbat autoreek bertaratzeko aukera izan dute; adibidez, Arantxa Urretabizkaia izan zen azkena. Halere, beste hainbat idazleek bideo bidez sarrera bat egin ohi izan diote ekimenari eta, horrez gain, eleberriaren lehenengo orria irakurri. Funtzionamendu arina duela aitortu du Elena irakasleak. Lehenik, liburutegian eleberria kokatzen da eta, lehen esan bezala, idazleak sarrera emanen dio. Ondoren, partaideak banan-banan txandakatuz joaten dira bakoitzak orrialde bat irakurriz. Amaitu ostean, partaideek, nahi izanez gero, beraien sentimenduak edota bizi izandako esperientziaren inguruan idazteko liburu bat izan ohi dute bertan eskuragarri.

Normalean, edozein motatako liburuak hautatzen dituzte, baina azken edizioetan egungo egoerarekin zerikusia duten gaiak hautatu dira. Lehenengo aukera Obabakoak eleberria izan zen, euskal literaturan dugun obra garrantzitsuenetako bat.



Solasaldi biziak

Solasaldia urtez behin egiten den ekintza bat da, eta, bertan, batxilergoko ikasleei luzatzen zaie aukera, nahiz eta aurten DBH4ko ikasleek ere parte hartu duten. Horrez gain, herriko beste hainbat erakundeei bidaltzen zaie gonbidapena; kasu, Kimetz taldeko emakumeei eta Zuhaizti zaharren egoitzari. Ohikoena ekimena Jakintza Ikastolan ospatzea izaten da, baina

Barrenako liburutegian ere egin izan dute. Halere, denen artean erabakitzen dute zein eleberri irakurri. Normalean, edozein motatako liburuak hautatzen dituzte, hau da, ez dira beti helduen eleberriak izaten; adibidez, lehengo urtean haurrei zuzendutako eleberri bat aukera zuten, eta, gainera, joko handia eman zuen. Elenaren hitzetan, “garai batean, emakumezkoek ez zuten irakurtzen, baina errealitatea errotik aldatu da, jubilatuen egoitzatik datozenak ez baitira gizonezkoak, emakumezkoak baizik”. Solasaldietan partaideen artean konexio ederra sortzen da, eta liburuak sorrarazten dizkieten sentimenduak partekatzeko unea izaten dute.

Eleberrien lanketa ikasgelan

Hizkuntzetako ikasgaietan liburuen irakurketa sustatzeko lanketa anitzak eta erakargarriak proposatzen dira. Elenak, Gaztelaniako irakasleak, DBH4ko hiruhileko bakoitzean eleberri desberdin batekin egitasmo bat prestatzen du ikasleek egiteko.

Lehengo hiruhilekoan gela osoarentzat nobela bera aukeratu eta sormen lanketa bat egiten da: arbel poliziala, hau da, pista, susmagarri, lekuko eta gertakarien frogekin egiten dena; eleberriko protagonistaren logelaren maketa, kasu, protagonistaren zaletasunak eta gustuak kontuan hartuta...



Bigarren hiruhilekoan, berriz, nobela desberdinak irakurrarazten dizkie, 4 liburu, hain zuzen ere. Aitzitik, lanketa horietako batean soilik egiten dute. Oraingo honetan, eleberriaren elementu garrantzitsuenekin, 15 gutxi gorabehera, konposizio bat egin eta argazkia ateratzea litzateke. Horrez gain, beste aukeretako bat egunerokoa egitea da, besteak beste, argazkiak, poemak, oroitzapenak, marrazkiak... txertatuz.

Hirugarren hiruhilekoan ikasleei lauzpabost nobela proposatzen zaizkie, eta nobela horiekin ere sormen lanketa desberdinak sortzen dituzte: infografia bat sortzea, xehetasun garrantzitsuenak modu bisualean txertatzea; booktoberra izatea, irakurritako liburuaren aipamenak egitea; literatura ibilbide bat egitea, hau da, behin liburuaren istorioa Madrilen gertatzen zenez bertara joan eta leku garrantzitsuak hautatu eta mapa batean txertatzea. Elenak nabarmendu du, “marrazkilari trebeei komikiak eskatzen dizkiet”. Orokorrean, lanketa hauek asko gustatzen zaizkiela aipatu du irakasleak.

Nahiz eta proposatutako egitekoak gustukoak eta erakargarriak izan, ikasle batzuek alferkeriagatik ez dituzte liburuak irakurtzen.

“Marrazkilari trebeei komikiak eskatzen dizkiet”

Hau guztia esanda, Jakintza Ikastolan irakurketa sustatzeko hainbat ekimen aurrera eramaten direla ondorioztatzerik izan duzue. Hortaz, gure gazteei irakurketara murgiltzeko gonbita helarazten diegu. Zergatik ez zarete animatzen liburu bat zuen esku artean hartzen? Esperientzia ederra biziko duzue!

Irati Garmendia, June Fresnillo, Irati Arroyo eta Elene Urbizu